Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

188

EBAZPENA, 2009ko azaroaren 2koa, Funtzio Publikoaren zuzendariarena, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegian bideratutako 937/2009 zenbakidun prozedura laburrean alderdi bezala ager daitezen, interesdun izan daitezkeenei epea jartzen diena.

Ebazpen honen bidez argitara ematen da Funtzio Publikoaren zuzendariak 2009ko urriaren 29ko Ebazpena eman duela non xedatu den Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiari bidal dakiola honako prozedura honi buruzko espediente administratiboa:

937/2009 zenbakiko prozedura laburtua: Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2009ko apirilaren 6ko Aginduaren aurka Francisco Javier Arrese Martínez jaunak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Aurkaturiko agindu horretan ezetsi egin zen 2008ko urtarrilaren 28ko Aginduaren bitartez deitutako lehiaketa espezifikoko Balorazio Batzordeak azaroaren 24an hartutako erabakiaren aurka jarritako gorako errekurtsoa.

Prozedura horrek eragina izan dezake lehen esandako lanpostuak betetzeko lehiaketaren ebazpenean.

Horregatik guztiagatik, eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak emandako idazkeran, 49.1 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Aipatutako espedientean interesdunak izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea jartzea, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiaren aurrean lehenago esandako prozeduran alderdi bezala aurkezteko aukera izan dezaten.

2.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 2a.

(Abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, Funtzio Publikoaren zuzendaria ez baitago).

Lan Harremanen zuzendaria,
JUAN CARLOS CUELLAR AREVALO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

188

RESOLUCIÓN de 2 de noviembre de 2009, de la Directora de Función Pública, por la que se emplaza a los posibles interesados en el procedimiento abreviado 937/2009 seguido ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Bilbao a fin de que puedan personarse como parte en el mismo.

En virtud de esta Resolución se hace publico que la Directora de Función Pública, con fecha de 29 octubre de 2009 ha dictado Resolución por la que se dispone la remisión al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Bilbao el expediente administrativo relativo al siguiente procedimiento:

Procedimiento Abreviado 937/2009: recurso contencioso-administrativo interpuesto por Francisco Javier Arrese Martínez contra la Orden de 6 de abril de 2009, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública por la que se desestima el recurso de alzada interpuesto contra el acuerdo de la Comisión de Valoración de 24 de noviembre de 2008 del concurso específico convocado por Orden de 28 de enero de 2008.

Este procedimiento puede afectar a la Resolución del concurso para la provisión de puestos de trabajo del concurso anteriormente citado.

Por ello, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa, redactado por la Ley 29/1998, de 13 de julio,

RESUELVO:

1.– Emplazar a los posibles interesados en el referido expediente para que puedan comparecer en el plazo de nueve días ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Bilbao y personarse como parte en el procedimiento antes citado.

2.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de noviembre de 2009.

(Por ausencia de la Directora de Función Pública, en conformidad con la Disposición Adicional Primera del Decreto 472/2009, de 28 de agosto).

El Director de Relaciones Laborales,
JUAN CARLOS CUELLAR ARÉVALO.